

I ERANSKINAK

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEN PROGRAMARAKO IZENA EMATEA

_____ (e)ko Udalak, 2024/2025 ikasturteko Nafarroako Gazte berriemaileen programaren oinarriak aintzat hartuta, programan parte hartzeko eskaera aurkezten du.

Gazte-informaziorako bulego edo gunearen datuak			
Izena:		IFZ:	
Helbidea:		Herria:	
PK:		Telefono-zenbakiak:	
Helbide elektronikoa:			
Programaren koordinatzailea GIB/GIGan:			

Programara honako zentro kolaboratzaile hauek atxikitzen dira (bete tokiko zentro kolaboratzaileak programara atxikitzen diren adina aldiz):

1. zentro kolaboratzailearen datuak			
Zentroaren izena		IFZ:	
Helbidea:		Herria:	
PK:		Telefono-zenbakiak:	
Helbide elektronikoa:			
Programaren koordinatzailea GIB/GIGan:			

2. zentro kolaboratzailearen datuak			
Zentroaren izena		IFZ:	
Helbidea:		Herria:	
PK:		Telefono-zenbakiak:	
Helbide elektronikoa:			
Programaren koordinatzailea GIB/GIGan:			

(e)n _____, 2024ko _____ (a)ren _____ (e)(a)n

Gazte-informaziorako bulego edo guneaz arduratzen den PRESIDENTEA EDO ALKATEA
(zigilua)

Sinadura: _____

LANKIDETZA HITZARMENA, GAZTEENTZAKO INFORMAZIOA EMATEKO BERRIEMAILEEN PROGRAMA GARATZEKO (NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUAREN PROGRAMA), 2025-2026 IKASTURTEAN

Iruñean, 2025eko [hilabetea]aren [eguna](e)(a)n.

HONAKO HAUEK BILDUTA

[izena] jaunak, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea den aldetik (erakundearen IFZa: Q7138913D; egoitza soziala: Yanguas y Miranda kalea 27, behea, Iruña), egintza honetarako ahalmena du, 11/2019 Foru Legearen 90.2.c) artikulua emandako eskumenari esker (11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa), eta bat etorri 242/2023 Foru Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoarekin (242/2023 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren estatutuak onesten dituena).

[izena] jaunak/andreak, [kargua] den aldetik, [udalaren izena](e)ko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (Udalaren IFZa: [zenbakia]; egoitza soziala: [helbidea]).

[izena] jaunak/andreak, [kargua] den aldetik, [ikastetxearen izena] ikastetxe laguntzailearen izenean eta hura ordezkatzuz (ikastetxearen IFZa: [zenbakia]; egoitza soziala: [helbidea]).

[izena] jaunak/andreak, [kargua] den aldetik, [ikastetxearen izena] ikastetxe laguntzailearen izenean eta hura ordezkatzuz (ikastetxearen IFZa: [zenbakia]; egoitza soziala: [helbidea]).

[izena] jaunak/andreak, [kargua] den aldetik, [ikastetxearen izena] ikastetxe laguntzailearen izenean eta hura ordezkatzuz (ikastetxearen IFZa: [zenbakia]; egoitza soziala: [helbidea]).

Alderdiak baieztatzen dute beren ordezkariak indarrean daudela, hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa aitortzen diote elkarri, eta hauxe

AZALTZEN DUTE

Nafarroako Gazteriaren Institutua administrazio-izaerako erakunde autonomo bat da, nortasun juridiko propioa duena, bai eta jarduteko ahalmen osoa ere bere xedek betetzeko. Gazteriaren alorrean garatu behar dituen politika espezifikoaren artean, gazteentzako informazioari eta aholkularitzari buruzko politika dago (Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legearen xedatutakoaren arabera). Jarduera horren helburua da gazteei orientazio eta aholkularitza integrala ematea, aukerak sortzen eta erabaki aske zein arduratsuak hartzen laguntzeko, haien garapen pertsonalari begira; jarduera hori aitortutako gazteentzako informazio zerbitzuen bidez gauzatzen da.

[izena](e)ko Udalak herriko gazteen bizi-baldintzak hobetzeko jarduerak egitea aurreikusten du, bereziki gazteentzako informazio-programen bidez.

Sinatzen duten ikastetxe laguntzailen ustez, interesgarria da gazteentzako informazioa ikasleen artean transmititzeko tresnak sortzea, ikasleek eskura izan ditzaten beren bizi-erperientzia eta etorkizuneko perspektibak zabalduko dituzten aukerak.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, [izena](e)ko Udalak eta aipatutako ikastetxe laguntzaileek interesa dute gazteentzako berriemaileen programa hau abian jartzearren lankidetzan aritzeko, eta, ondorioz, alderdiek erabaki dute hitzarmen honen bidez arautzea nolakoa izanen den erakundeen arteko lankidetzaren esparru espezifikoak.

Horregatik guztiagatik, alderdi sinatzaileek honako klausula hauek adostu dituzte:

KLAUSULAK

LEHENA. Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da ildo batzuk ezartzea, Nafarroako Gazteriaren Institutua, [izena](e)ko Udala eta lehen aipatutako ikastetxe laguntzaileak lankidetzan ari daitezen, Nafarroako gazteentzako informazioa emateko berriemaileen programako III. edizioa garatzeko, 2025-2026 ikasturtean, honako helburu hauekin:

- a) Abian jartzea informazioa gazteen artean hobeto zabaltzeko berriemaileen sistema, kontuan hartuta abantaila handia dela gazteek berek informazioa berdinen artean transmititzea beren ohiko kanalak erabilita.
- b) Gazteentzako informazio-zerbitzuak hobetzea.
- c) Gazteek gazte-informazioaren arloan parte har dezaten sustatzea.
- d) Aisialdi hezigarria sustatzea.
- e) Balioetan oinarritutako hezkuntzari ekarpena egitea.

BIGARRENA. Nafarroako Gazteriaren Institutuaren konpromisoak.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak honako jarduketak hauek egiteko konpromisoa hartzen du, gazteentzako informazioa emateko berriemaileen programa garatu ahal izateko:

- a) Programa koordinatzea: deialdiak egitea, administrazio-espeditentzarako kudeatzea eta abar.
- b) Programa gauzatzeko aurrekontua ematea.
- c) Bere gain hartzea berriemaileentzako sarien ordainketa eta kudeaketa.
- d) Protokoloak, tresnak eta programari lotutako bestelako dokumentazioa prestatzea (jarraipen- eta ebaluazio-erriak, irizpideak, programaren irudia, diplomak, etab.).
- e) Inplikaturako erakundeekin –udalekin, informazio-zerbitzuekin eta gune laguntzaileekin– koordinatzeko gune eta tresnak sortzea.
- f) Programan parte hartzen duten eragile guztien hasierako prestakuntza landu eta gauzatea, bai eta haien lana egiteko komenigarri den beste edozein prestakuntza ere.
- g) Berriemaileen sareari informazio-lehentasunak ezartzea, Nafarroako Gobernuak edo Europak gazteei zuzendutako kanpainen bat.
- h) Berriemaile guztien ekintza komunak antolatu, koordinatu eta finantzatzea (bisitaldiak, topaketak, etab.).
- i) Berriemaile-sarearen ordezkariak lanak bere gain hartzea estatuan zein Europan.
- j) Inplikaturako profesionalei ziurtagiriak ematea haien lanorduek aitortzeko.
- k) Programako datuak ebaluatu eta erregistratzeko prozesuak sistematizatzea.

- l) Berriemaileen lana egiteko euskarri fisikoak ematea.
- m) Irudi bat sortzea marka gisa eta merchandisingerako.
- n) Programari buruzko datuak ebaluatzeke eta erregistratzeko protokoloak sistematizatzea.

HIRUGARRENA. [izena](e)ko Udalaren konpromisoak.

[izena](e)ko Udalak honako jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du, gazteentzako informazioa emateko berriemaileen programa garatu ahal izateko:

- a) Udalerria atxikitzea gazteentzako informazioa emateko berriemaileen programari.
- b) Berriemaileei sariak emateko proposamena egitea, hala dagokionean, gazteentzako informazio-bulego edo -gunearekin eta ikastetxe laguntzailearekin koordinatuta.
- c) Izena ematea eta datuak kudeatzea.
- d) Gazteentzako kanpaina espezifikoak, prestakuntzako moduluak, informazio-jardunaldiak eta abar egitea, bere eskumenen esparruan.

LAUGARRENA. Ikastetxe laguntzaileen konpromisoak.

[izena] ikastetxe laguntzaileak/laguntzaileek honako jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du/dute, gazteentzako informazioa emateko berriemaileen programa garatu ahal izateko:

- a) Berriemaileen programa beren espazioetan hedatzea.
- b) Gune laguntzailearen izenean programan parte hartuko duten gazteak hautatzea, gazteentzako informazio-zerbitzuekin lankidetzan, eta dagokion gazteentzako informazio-zerbitzuari jakinaraztea.
- c) Gune bat uztea, berriemaileen informazio-panela paratzeko.
- d) Berriemaileei laguntzea ikastetxean hedapen-lana egiten.
- e) Berriemaileek prestakuntzako ekintzetara, bileretara edo ekitaldietara joan beharra dutenean, horretarako erraztasunak ematea.
- f) Ikastetxe edo gune laguntzaileko pertsona bat izendatzea, programaren jarraipena egin dezan ikastetxearen eskumeneko eremuan.
- g) Berriemaileei informazio-lehentasanak ezartzea ikastetxearen eremuari dagokionez.
- h) Gazteriaren alorreko arduradunei erraztasunak ematea ikastetxe laguntzailean eta espazioetan sartzeko, berriemaileen programa gauzatzearen.
- i) Proposatutako jarduerak egiteko ordutegiak ezartzea.

BOSGARRENA. Indarraldia.

Hitzarmen honek ikasturte bateko iraupena izanen du, sinatzen denetik aitzina.

SEIGARRENA. Erantzukizuna.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, [izena](e)ko Udalak eta aipatutako ikastetxe laguntzaileek beren gain hartzen dituzte hitzarmen honetako jarduketak garatu eta gauatzeko konpromisoen ondorioz sortzen diren erantzukizunak.

ZAZPIGARRENA. Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, udal sinatzaileak edo ikastetxe laguntzaileak ez baditu betetzen klausuletan jasotako betebeharrak, hitzarmen hau suntsiaraziko da.

Hitzarmena zenbait ikastetxe laguntzailek sinatzen badute eta horietako batek klausuletan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, hitzarmena suntsiaraziko da ikastetxe laguntzaile horri dagokionez, eta indarrean jarraituko du gainerako ikastetxeei dagokienez.

Gerora sortutako arrazoi batengatik ezinezkoa bada klausularen bat betetzea, hitzarmena suntsiaraziko da, salbu eta bi alderdiek ados jarrita kontrakoa adosten badute.

ZORTZIGARRENA. Jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoak.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteentzako informazio-zerbitzuen eta ikastetxe laguntzaileen gaineko jarraipena, zaintza eta kontrola egingen du; horretarako, programaren garapenaren aldizkako jarraipena egingen du, baita tarteko ebaluazio bat eta azken ebaluazio bat ere.

Halaber, gazteentzako informazio-zerbitzuek berriemaileen lanaren gaineko jarraipena egingen dute; horretarako, ikastetxera egiten dituzten bisitak erregistratuko dituzte, begiratuko dute nola kudeatzen dituzten sare sozialak, eta berriemaileen azken ebaluazioa egingen dute.

BEDERATZIGARRENA. Hitzarmena erregistratzea

Hitzarmen hau Elkarrekin Jarduteko Planen, Hitzarmenen eta Itunen Erregistroan inskribatuko da.

HAMARGARRENA. Izaera juridikoa eta jurisdikzio eskuduna.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 88. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko zaio. Halaber, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, aipatutako arauaren 7.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena aplikatu eta betearazteari buruz sortzen diren eztabaidak alderdiak ados jarrita ebatziko dira. Adostasunik lortu ezean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurreikusitako moduan ebatzi beharko dira eztabaida horiek.

Alderdiek berariaz uko egiten diote izan lezaketen foruari, eta Nafarroako epaitegi eta auzitegiek duten jurisdikzioaren eta eskumenaren menpean jartzen dira.

Eta adierazitakoarekin ados daudela adierazteko, parte-hartzaileek dokumentu hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

[izena]
Nafarroako Gazteriaren Institutua

[izena]
[izena](e)ko Udala

[izena]
[ikastetxe laguntzailearen izena]

[izena]
[ikastetxe laguntzailearen izena]

[izena]
[ikastetxe laguntzailearen izena]